ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Lehena.- Trafikoko Buruzagitza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza eta Zumaiako Udalaren arteko lankidetzazko hitzarmena onartzea, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da TBNren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta udal sinatzailearen artean trafikoa eta bide-segurtasunaren arloko ekintza jakin batzuk, zehazki datu-transmisioari eta erregistroetarako sarbideari buruzkoak, garatzeko lankidetzazko sustatzea.



BIGARRENA.- Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren betebeharrak

1. Udalari Ibilgailuen Erregistro Orokorreko eta Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroko sarbideak ahalbidetzea. Erregistro horiek daukaten informaziorako sarbidea laugarren klausulan eta hitzarmen honen 1. Eranskinean zehazten diren segurtasun-mailekin eta murrizketekin burutuko da.
2. Ibilgailuen erregistroan matrikulazio berriei, titulartasun- eta helbide-aldaketei eta bajei buruz dauden datuak udalari aldira ematea, Toki Ogasunak arautzen dituen Legean ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Eusko Jauriaritzako Trafiko Zuzendaritzaren betebeharrak

1. TBNri ezbeharrei buruzko datuak jakinaraztea, ezarritako prozedura kontuan izanik.
2. Euskal udalei udal-barutian gertatutako istripuen berri ematea.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak

Udalak ekintza hauek burutzeko konpromisoa hartzen du:

1. Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroari puntuak kentzen dituzten zehapen irmo larrien eta oso larrien berri ematea, baita gainerako zehapen larrien eta oso larrien berri ere, Bide Segurtasunaren Legean ezarritako baldintzetan. Helburu horrekin, Bide Segurtasunaren legean araututako trafikoko zehapen-prozedura zorrotz betetzeko beharrezkoak diren antolamendu- eta informatika-egokitzapenak egin beharko ditu.
2. Adostutako formatuan eta epeetan Ibilgailuen Erregistroari trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga zor duten ibilgailuen berri ematea, Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak ezarritako kasuetan.
3. Udal-barutian gertatutako istripuei buruzko datuak lantzea eta, ezarritako prozedurari jarraiki, Eusko Jauriaritzako Trafiko Zuzendaritzari horien berri ematea, horretarako beharrezko antolamendu- eta informatika-egokitzapenak eginez.
4. Trafiko-zehapenei buruzko Ediktuen Taulan (TRAZET) alta emanda egotea.

BOSGARRENA.- Datu pertsonalak babestea

Alderdiek beren jarduerak burutzeko hauek hartu behar dituzte kontuan: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartzen duen Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra eta maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuak onartzen duen Gidarien Erregelamendu Orokorra, baita gerta daitezkeen aldatzeko ere.

Tratamenduaren xede diren datuak hitzarmen honetan jasotako jarduerak garatze aldera beharrezko lanak egiteko baino ezingo dira erabili, eta ahaleginak egingo dira datu horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe atzitzea galarazteko.

DGTk, organo lagatzailea den aldefik, auditoretzarako eskainiko dituen sistema eta bitarteko informatikoen bidez, udalak gauzatu beharko ditu jasotako datuen zaintza eta erabilera egokia bermatuko dituzten kontrol-jarduerak. Hori aurrera eramate aldera, DGTk konpromisoa hartzen du organo lagapen-hartzaileak aukeratuko dituen arduradunei beharrezko laguntza emateko.

Organo lagapen-hartzaileak DGTk erabaki ditzakeen kontrolatze- eta gainbegiratze-jarduerak guztiak onartzen ditu; horrela, lagatutako informazioa era egokian eskuratu eta erabili dela egiaztatzen.

Kontrol eta auditoretzarako jardueren ondorioz edo salaketaren edo jakinarazpenaren bitartez, organo lagatzailearen kudeaketarako izan gabe datuen, aurrekariaren, erregistroaren edo txostenen erabilerekin loturiko edozein motatako irregulartasuna detektatuz gero, berehala eginbideak irekiko dira guztiz argitzeko eta, hala egokitzuz gero, erantzukizunak eskatzeko.

SEIGARRENA.- Araubide juridikoa

Hitzarmen hau idatzi da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1. c) artikuluan ezarritakoaren babesean eta artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoari jarraituz. Hitzarmenean ezarri ez den guztirako, sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak argitze aldera,



lege horretatik eratorritako printzipioak beteko ditu, baita aplikagarriak diren gainerako xedapenak ere. Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako auzitegiak eskudunak izango dira hitzarmenaren interpretazioari, betetzeari, amaierari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz ager litezkeen auziak ebazteko, baldin eta sortuko den jarraipen-batzordeak beroriek ebazterik izan ez du.

ZAZPIGARRENA.- Jarraipen-batzordea

Hitzarmena sinatzean, haren jarraipena egiteko batzorde bat ezarriko da, kide hauek izango dituenak: Probintziako Trafiko buruak izendatutako ordezkari bat, Eusko Jauraritzako Trafiko Zuzendaritzak izendatutako bat eta udalak izendatutako beste bat.

Jarraipen-batzorde horretara egokitzat joko diren teknikariak, alderdiek aukeratuta, joan ahalko dira, betiere jorratu beharreko gaien arabera.

Batzorde hori alderdietako edozeinen eskariz bilduko da, gutxienez urtean behin, gauzatutako lankidetzatik sortuko diren emaitzak eta gorabeherak aztertzeko.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, bere funtzionamendua Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoari buruz ezarritakoaren mende egongo da.

Jarraipen-batzordearen ardurak hauek izango dira:

- a. Hitzarmen honetatik sortuko diren interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea.
- b. Egindako lana eta hitzarmen honen bidez izandako lorpenak urtero ebaluatzea.
- c. Hitzarmenaren betearazpenari aplikatu dakizkion teknologien, tekniken eta metodoen bilakaerari jarraitzea, egin beharreko jardueren aldaketa alderdiei proposatuz, betiere horrek berekin hitzarmenaren xedea aldatzea ez bakar.

ZORTZIGARRENA.- Aldaketa

Hitzarmen hau alderdien arteko adostasunez aldatu ahalko da haren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa denean.

BEDERATZIGARRENA.- Indarraldia eta suntsiarazteko kausa

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean eta urtebeteko indarraldia izango du. Isilbidez urtez urte luzatu ahalko da baldin eta arrazoi hauengatik suntsiarazten ez bada:

- a. Alderdien arteko adostasunez, idatziz adierazita.
- b. Hitzarmenaren salaketa, edozein unetan alderdietako edozeinek egindakoa. Bestelako erabakirik hartzen ez badute, eraginak izango ditu era frogagarrian jakinarazi eta hiru hilabetera.
- c. Alderdietako baten borondatez, beste alderdi batek edo gainerako alderdiek hitzarmenaren klausuletako edozeinen ez-betetze larria egin dutela oinarri har-tuta. Suntsiarazteko nahi hori aurretiaz jakinaraziko du; hain zuzen, hainbat jardueraren jarraipena ez kaltetze aldera, suntsiarazpenaren unean betetzeko bidean diren jardueren beharrezko jarraipena bermatuta utzirik. Bestelako akordioak ez badute, eraginak izango ditu jakinarazi eta hamabost egunera.

I. ERANSKINA

SEGURTASUNEN DOKUMENTUA

1. Komunikazio-kanal baten identifikazioa

Udalak komunikazio-kanal bat izatea (telefonoa, posta elektronikoa, etab.) bermatuko du. Horren bidez, DGT udalarekin harremanetan jarri ahalko da helburu hauekin:

- Datu-eskaerekin loturiko gorabeherak konpontzea.
- DGTko fiskalizazio- eta kontrol-arduradunek datu-eskaeren auditoriak eskatu ahal izatea, era horretan baldintzak —datuak lagatzeko zerbitzuetarako sarbidea onartzeko erabili zirenak, hain zuzen—, betetzen direla egiaztatzeko.

2. Erabilzaileen kudeaketa



Puntu honetan udalak hau bermatuko du:

- DGTk datuak lagatzeko dituen zerbitzuetara sartzeko baimendutako erabiltzaileen edo kideen bizi-zikloa kudeatzea ahalbidetzen duten prozedurak ezarrita dituela (altak, bajak, erabiltzaileen baimenen aldaketak).
- DGTk hala eskatuz gero, datu-eskaerak egiteko baimendutako erabiltzaileen edo kideen zerrenda eguneratua eman ahalko duela (horri esker egiaztatua ahalko da zerrenda hori bat datorrela DGTren sarbidea kontrolatzeko sistemetan dauden datuekin).
- Datu-eskaerak egiteko baimendu dituen pertsonekin zerikusia duen edozein aldaketaren berri emango duela. Horiek horrela, langile bat lanpostuz aldatzen bada eta hor baimen hori behar ez badu, edo udaleko langile gisa baja hartzen badu, baja emango zaio DGTren datuak lagatzeko zerbitzuen erabiltzaile gisa.

3. Sarbide-kontrola

Udalak bermatu beharko du datu-eskaerak egingo diren lan-ekipoetan sarbidea kontrolatzeko mekanismo egokiak erabiltzen dituela. Horrela, eragotzi ahalko da bai.mendu gabeko pertsona bat baimenduta dagoen pertsona baten lan-ekipoan sartu ahal izatea.

4. Datu-eskaeren auditoriak

Beharrezko informazio guztia biltegitatu behar da (herriarraren baimena, datu-eskaeraren helburua, etab.); horren bidez, DGTk auditoria-eskaera eginez gero, udalak frogatu ahal izateko egindako eskaeren egokitzapena burutu dela.

Horrez gain, udalak bermatu behar du datu-eskaeren egokitzapena justifikatzeko premiazko informazio guztia biltzea ahalbidetzen dion prozedura duela.

5. Informazioa biltegitatzea.

Udalak bermatuko du eskatutako informazioa behar bezala biltegitatu eta kudeatzen duela, egindako eskaera justifikatzen duten beharrezko datuak barne sartuta, informazio hori dagoen euskarria edozein dela ere.

6. Probak eta datu errealak

Eskatutako datuen nolabaiteko tratamendua egiten duten aplikazioak garatuz gero, udalak bermatu beharko du aplikazio horien probetan datu errealik ez dela erabiliko, berorien konfidentzialtasuna arriskuan jarri ahal baitute.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko

Hirugarrena.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki hauek Trafikoko Buruzagitza Nagusiarri eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Zumaian, 2016ko otsailaren 22an

Hirigintza, obrak, zerbitzuak, ingurumena eta udaltzaingoaren
saileko batzordeburua

Oier Korta Esnal

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:



ERABAKIA: Trafikoko buruzagitza nagusia, Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendaritza eta Zumaiako Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena onartu da.

4.- PROPOSAMENAK.-

4.1.- UDALEKO TALDE SOZIALISTAK AURKEZTURIKOAK:

4.1.1.- ENERGIA-POBREZIAN DAUDEN PERTSONEI ENERGIA-HORNIDURA EZ MOZTEKO NEURRIAK HARTZEKOARI DAGOKIONA.-

Energia-pobrezian dauden pertsonen energia-hornidura ez mozteko neurriak hartzeko helburuarekin, Udaleko Talde Sozialistak honako MOZIOA aurkeztuko du Udalbatzak eztabaidatu eta erabaki bat har dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Energia-pobrezia bezala definitzen da etxeko oinarrizko premiak betetzeko behar den energiaren zerbitzuak ordaindu ezin dutenen, edo diru-sarreraren zati handiegia euren etxebizitzaren energia-faktura ordaintzeko erabiltzen dutenen egoera.

Pobrezia-egoeran gero eta familia gehiago daudela ikusita, faktura horiek ordaindu ezinik dauden, argirik ez duten, etxean hotzez dauden eta edateko, euren burua eta arropa garbitzeko ura ez duten pertsonen ur, argi eta gasaren oinarrizko hornidura bermatzeko neurriak hartzeko unea da.

2013ko abenduan jada, Diputatuen Kongresuan PP alderdiaren gehiengo absolutuak arazo honi irtenbidea ematea —Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko neurriak hartzen ari dira— eragotzi zuen. Gainera, Rajoyren gobernuaren ezezkoa defendatu zuen pertsonak lan-erreforma - kanporatze merkea baimentzeaz gain, langileen errentak oro har pobretzea dakarrena— bezalako beste neurri batzuk hartzeari buruz hitz egin zuen.

Euskal Sozialistak, legealdi honetan, 10 aldiz sustatu dugu gai honen inguruko eztabaida Legebiltzarrean eta, Urkulluren gobernuaren 2015eko aurrekontuei egindako zuzenketa baten bitartez, lehen aldiz, energia-pobrezian dauden familien premiei -gaur egun ez dute helburu honetarako beste laguntzarik— aurre egiteko aurrekontu-sail bat barne hartzea lortu genuen. Horren ondorioz, urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzak Laguntza hori Euskadiko Gurutze Gorriari emandako diru-laguntza moduan gauzatu zuen, energia-pobrezia aurka borrokatzeko eta etxebizitza-arloan krisian dauden familiei laguntzeko proiektua sustatzeko. Laguntza horri esker, diru-sarrera txikiak dituzten familien etxebizitzako eta horniduretako (argia, ura edo gasa) gastuen zati bat ordaindu ahal izango da, eta premia oinarrizkoen aurre egin ahal izateko familiek eskura dituzten beste laguntza batzuen berri emateko eta familiak haietara bideratzeko erabili ahal izango da.

Sozialistek hasitako lanerako bide honek ondorioak izan ditu EAEko 2016ko aurrekontuetan, aipatutako laguntzetarako aurreko ekitaldiko diru-kopurua bikoiztu egin baita. . Mala eta guztiz ere, egoera hau neguan larriagoa izaten da, energia- pobrezia gizarte-sektore ahulenen eguneroko bizitzan ondorio latzagoak dituen garaia delako. Herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik, ahal den neurrian, egoera horiek arintzeko behar den guztia egin behar dugu.

Hori dela eta, Udaleko Talde Sozialistak ondorengo Mozioa aurkeztuko du:

1.- Udalerri honetako ekonomikoki familia txiroenei faktura ez ordaintzeagatik elektrizitate-, gas- eta ur-hornidura ez mozteko, edo moztu bazaie, berriro ezartzeko behar diren koordinazio-mekanismoak enpresa hornitzaileekin finka ditzan eta, behar izanez gero, hitzarmenak sinatu ditzan eskatzen dio Udalbatzak Udala Gobernuari.



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

2.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez, 2016ko EAEko Aurrekontu Orokorren bidez ordaindutako energia-pobreziaren aurkako borroka-programa garatzen Euskadiko Gurutze Gorriarekin elkarlanean jardutea, eta laguntzen programa hau gure herritarrei helaraztea eskatzen dio Udaltzatzen Udal Gobernuari.

3.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzek erantzuten ez dieten energia-pobreziako kasuei erantzuteko aurreikusitako kontu-saila bideratzeari buruz 2015eko martxoaren 26ko Eusko Legebiltzarraren erabakia berresten du Udaltzatzen.

4.- Etxeko oinarrizko premiei erantzuteko nahikoa izango den energia-horniduraren eskubidea bermatuko duen energia-pobreziaren aurka Lege Proiektu bat helarazteko eta, Autonomia Erkidegoekin batera, Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako urteko funts baten laguntzaz, energia-pobreziarekin amaitzeko estrategia finka dezan eskatzen dio Udaltzatzen Espainiako Gobernuari.

Udaleko talde sozialisten bozeramailea

Arritxu Marañonek (ES-SV) esan du:

"Simplemente lo que es la pobreza energética en definitiva lo que quiere decir es que hay familias y personas sin recursos ó con los recursos muy reducidos para poder pagar elementos tan básicos como son el agua, la luz y el gas, pasando frío sin poder ducharse, sin poder lavar la ropa, etc. etc.

El fin de esta moción es que en otros lugares de Europa ya se han dado pasos para tratar de abortar esta situación, aquí en la comunidad autónoma desde hace poco también y se trata de que desde el ayuntamiento de Zumaia en la medida de nuestras posibilidades apoyemos este programa a nivel local por un lado tratando de evitar los cortes de suministro de luz, y de agua a familias sin recursos y en la medida de lo posible a las que se le hayan cortado los recursos poder establecer convenios con las empresas afectadas para poder restablecerlos de nuevo y luego a nivel ya más de comunidad autónoma, también desde aquí desde Zumaia, desde los servicios sociales dar a conocer desde servicios sociales en colaboración con la Cruz Roja el programa que se ha aprobado ya en el Gobierno Vasco con consignación presupuestaria para que familias de Zumaia puedan acceder a él, lo conozcan y puedan acceder a él.

También por otro lado apoyar también la labor del parlamento vasco que ha aprobado también una partida presupuestaria para aportar recursos económicos que no entran dentro del programa de las AES con el mismo fin y para terminar solicitar al Gobierno del Estado cuando se constituya alguna vez, solicitar al Gobierno del Estado que inicie el trámite parlamentario necesario para regular y establecer una ley contra la pobreza energética como ya se está haciendo en un montón de países y de estados de Europa, sin más."

Alkateak esan du aurkeztutako mozioaren aurrean udal gobernuak bat egiten duela eta atxikitzen dela sozialistak aurkeztutako mozio horrekin, osoko bilkuran urtarilak 13ko aldundiko osoko bilkuran onartu zuen bezala Batzar Nagusietan; eta aldundiari eskatzen diote ildo horretatik lan egiteko udalerriekin Arritxuk komentatu duen bezala ahal den heinean gure eskumenetan dagoen heinean pobreziagatik jota energia moztu izan diotenei, gasa, ura, neurriak hartu hori ekiditeko eta udal gobernuak alderdi horretatik bat egiten dutela mozioarekin eta gonbidatu die osoko bilkura osatzen duten taldeei hau izan dadila batzordeetan gai honen inguruan lan egiteko modua denon artean.



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) esan du bat egiten dutela moziorekin eta eskertzen dutela horrelako jarrerak azaltzea eta proposamenak egitea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:

ERABAKIA: Energia-pobrezian dauden pertsonen energia-hornidura ez mozteko neurriak hartzekoari buruzko proposamena onartu da.

4.1.2.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN (SEAD)-en ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURREARI DAGOKIONA.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SEADen ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA DELA ETA

2016ko otsailak 27, 40. urteurrena betetzen da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Zumaia Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguarekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarria izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.

Hori guztia dela eta, Zumaia Udalak ondorengo adierazten du:

1. Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen auto determinatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOaren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkaritza bakar eta legitimoa, NBEk hala aitortua.

2. Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.

3. Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utzi dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4. Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain deun erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobeitza dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

5. Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestua dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.

6. Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eramán daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

7. Otsailaren 27an Udalak, udaleko balkoietan "Sahara Askatu" lelopean bereizgarri bat jarriko du.

Sin:
Udaleko talde Sozialisten bozeramailea

Arritxu Marañonek (ES-SV) esan du:

Simplemente es que cumplen este año 40, que se cumple el 40 aniversario de la constitución de la república Árabe Saharaui Democrática y la constitución del frente polisario que son ya más de 40 años en los que el pueblo saharauí está fuera del país y de su solución definitiva y a través de esta moción que yo creo que es histórica al discurrir de los años pero se trata desde Zumaia como desde otros municipios de reconocer por un lado la causa saharauí, volver a reivindicar el derecho de auto determinación del pueblo saharauí reconocido en el derecho internacional, exigir la responsabilidad del estado de España en la causa saharauí y una posibilidad de poderlo hacer es ahora que termina el mandato de la MINURSO en las entes internacionales en los que está el estado español presente exigir la renovación ó la prórroga del establecimiento de la MINURSO y solicitar la celebración de un referéndum para el sahara, para terminar exigir también a Marruecos que finalice con las hostilidades hacia el pueblo saharauí de todo tipo que se vienen dando históricamente y bueno... lo mismo desde el municipio de Zumaia termino diciendo que se apoya la causa saharauí como se ha venido haciendo a lo largo de los últimos treinta y tantos cuarenta años.

Alkateak udal gobernuak ere bat egiten duela proposamenarekin esan du.

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) bere taldeak ere bat datorrela proposamenarekin.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:

ERABAKIA: Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoaren (SEAD)-en aldarrikapenaren 40. urteurreari dagokion adierazpen instituzionala onartu da.



4.2.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUDELEKO BATZORDEAK BERRETSITAKOA eta alkateak gai zerrendan sartu dena,

4.2.1.- Martxoaren 8a “Emakumeen Nazioarteko Eguna”

EUROPAR UDALEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Martxoaren 8 a
Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8a dela eta, 'Emakumeen Nazioarteko Eguna', EUDEleko Batzorde Eragileak berretsitako Adierazpen Instituzionala bidaltzen zaie Euskadiko Udalei.

Aurten da Toki Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunaren 10. urteurrena. Aldi berean gertatu da EUDElen lehendakaritza Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Berdintasun Batzordean. Ibon Uribe Galdakaoko Alkateak izango du ordezkaritza, bi urtez..

Testuinguru honetan, martxoaren 8a ospatzea oso une egokian dator Euskadiko udalek berdintasuna inplementatzeko konpromisoa berrindartu dezaten eta, xede horn begira, europar mailako berdintasunerako Gutunari bultzada berria eman diezaioten.

Horregatik guztiagatik, Adierazpen instituzional honen bidez EUDElek dei egiten die udalei 'Emakumeen Nazioarteko Eguna' ospatzeko, nola eta Europako Gutunari atxikiz eta/edo berau garatuz, bai halaber udalerrietan bultzatuko diren ekimenen bitartez.

'Martxoaren 8ko Adierazpenarekin batera, Berdintasunerako Europako Gutuna eta berorri atxikitzeo dokumentua bidaltzen dira

UDALERRI ETA ESKUALDEETAKO GOBERNUEK BAT EGIN DIJTE EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE. EUROPAN ETA MUNDUAN

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUN HONETAN, 2016KO MARTXOAREN 8AN, TOKIKO ETA ESKUALDEETAKO GOBERNUEN ORDEZKARIAK HELBURU HAUEN INGURUAN ELKARTU DIRA:

Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan —tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;

Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok



Zumaiako Udala

2016IAKU0001-005-003

sinatu duten Tokiko Bizitza Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;

Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki' honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren implementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.

Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;

Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionaleri;

Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragoztekoa;

Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

Alkateak gaia aurkeztu du esanez martxoaren 8an emakumeen nazioarteko eguna dela eta aurten gainera ematen da emakume eta gizonen berdintasunaren Europako gutunaren 10. urteurrena eta zumaian urtero antolatzen direla martxoaren 8aren inguruan hainbat ekintza emakumearen berdintasunaren alde azpimarratzeko edo berdintasun hori urtean zehar eta pausoz-pauso lortzen joateko.

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) adierazi du pozten dirrela mozioa aurkeztearekin, baina askotan adierazpen instituzionalak horretantxe gelditzen direla paper hutsean, alegia, eta horregatik EH BILDUK nahi duela Zumaia begira konkretuki konpromiso zehatzak eta pixkat berdintasun erreal hori lortze bidean politika zehatzak egiten jarraitzea, eta hiru proposamen zehatz egin ditu hiri debekatuen mapa egin den diagnostikoarekin bat eginez:

1.- Izango litzateke emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko espazio publikoan. Gaur egun Zumaiako kaleetan oraindik desoreka itzela edo sinbologiari dagokionez, hiri debekatu mapan azaldu den bezala 75 kaleetatik 21 dira gizonetzkoenak eta 5 emakumeenak. Eta 5 horietatik 3 erlijioari lotutako izenak dira, o sea, benetan emakume horiek ez ziren existitu.

Orduan pentsatzen dute pixkanaka pixkanaka oreka hori lortzen joan behar dela eta horregatik proposamena da Ardantzabideko auzo berrian oraindik izenik ez duen plazari gizartearentzat ekarpena egin dion emakume erreferente baten izena jartzea eta pentsatzen genuen izena emakume baten, Zumaia emakume baten izena edo bestela emakume konkretu baten izena ez baldin bada emakume taldeak zumaian egin izan duten ogibide edo ekintzaren bat.



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

EH BILDUK proposamen batzuek jarri ditu baina irekia da, usten dute hori onartzen bada proposamen hau, gero izena bera konkretuki bai Ardantzabide inguruko bizilagunekin kontrastatu behar dela eta baita talde politikoeekin, beraien proposamenak:

Saregileak, garai batean emakumeak josten zituela sariak

Elvira Zipitria, izan zelako euskara bultzatzen eta emakume garrantzitsua

Etxeko-andreak, izena jartzea ere bai, ez? emakumeak egin duten lan bat izan delako eta hori bisibilizatzea edo

Lucia Lacarra

Nolanahi ere irekia dela esan du bertako bizilagunekin hitz egin beharko dela.

2. puntua: Aipatutako arrazoi igualarekin, sinbolikoki hori, emakumeak bisualizatzen joateko, Oikian pentsatu dugu ere plaza edo kale bat izendatzea Inaxi Etxaberi, gaur egun oraindik bizi dago eta horregatik iruditzen zaigu gainera, lehenengo emakume bertsolaria izan da, eta gaur egun omenaldi asko eta jasotzen ari da beste eremu batzuetan eta usten dugu Oikian ere, bere auzoan ere merezi duela.

Eta hau ere irekia da gero, Oikiarrekin batez ere hitz egin beharko litzateke ze... plaza edo kale edo nahi duten aukeratu eta Inaxi berarekin oraindik bizi dagoelako.

3. puntua: hiri debekatuaren mapan atera diren, prozesu guzti horretan atera diren ondorio horiekin, ondorio eta gomendio zuzen batzuek idatzi dira eta orduan horiek kontuan hartzeko plangintza bat eskatzen dugu. Zumaia udaltxean hirigintzako eremuan eta plangintza urbanistikoetan genero ikuspegi hori txertatzeko hemendik aurrera, ez gelditzeko egin den diagnostikoa alde batera eta paperetan galduta, baizik eta plan urbanistikoetan atera diren ondorio horiek txertatzea. Orduan proposamen konkretu litzateke plan bat plangintza bat idaztea urbanismoko arlotik hiri debekatuen mapa honekin, beraien pentsatzen dute sei hilabeteko epea edo ematea hurrengo kurtsorako iraila, urria hasierako plangintza hori egin da edukitzea eta gero aurrera begira egotea irizpide horiek eta hemendik aurrerako urbanismorako.

Alkateak esan du aurkeztutako hiru puntuekin muinean ados daudela, iruditzen zaiela pleno bat ez dela igual fororik egokiena erabakitzeko konkretuki plaza baten izena, hau edo bestea izango den, baizik eta garrantzitsuena dela azaltzea alderdi politiko guztien iritzia EH BILDUK aurkeztu dituen hiru puntu horien inguruan fondoan ados dauden edo lan egiteko borondaterik dagoen; eta Alkateak esan du alderdi horretatik udal gobernu ados dagoela eta behintzat batzordeetan gauzatu beharko litzatekeela Zipitria izan zen edo saregileak edo etxeko-andreak Ardantzabideko plazari izena jarri beharrekoak. Bigarren puntuari buruz Oikian Inaxi Etxabe andreaken izena jartzearena, baita ere hor ere proposamen bakarra da eta begi onez ikusten duela hasiera batean baina baita ere iruditzen zaie hitz egin beharko litzatekeela batzordeetan eta baita ere Oikia auzoarekin ere bai. Eta hirugarren puntuari dagokionez, puntu honetan udala martxan dagoela esan du, gai honen inguruan eta puntu beltz horiek irten dutenak diagnostiko horretan ez dituztela oraindik komunikabideetan azaldu baina lanean ari dira, auditoria-luminikoa egiten



herrian eta auditoria- luminiko inguruan irtengo duela puntu beltz horietan argi gutxi dagoen puntu horietan, non indartu beharko litzatekeen, azkenean hainbat gauza hartzen baititu auditoria-luminiko horrek.

Arritxu Marañonek (ES-SV) ondorengoa adierazi du:

Nosotros, bueno yo, nosotros también estamos de acuerdo con los tres puntos, es cierto que en Zumaia hay un desfase en cuanto a la denominación de determinadas calles bastante elevado en cuanto a hombres y mujeres y si efectivamente es ocasión ya que hay una plaza que en este momento todavía no tiene nombre y habrá que darle alguno pues aprovechar la ocasión y que tenga nombre ó bien de alguna mujer que haya hecho algo por Zumaia ó bien un nombre genérico que recoja a todas ó en todo caso que recoja el espíritu, o sea que totalmente de acuerdo.

En el segundo que va en la misma línea pero que es un poquito más particular porque hace referencia a un barrio concreto, más que nada que es el de Oikia pues aprovechar y hacer el reconocimiento Inaxi Etxabe, como habéis dicho no? una de las primeras mujeres más reconocidas importantes en el mundo de los bertsos, pues como no, pues, totalmente de acuerdo también porque sería una reconocimiento a ella y además ahondar en el tema que habéis señalado y en cuanto al tercero pues un poco de lo mismo, si encima Oier ya nos ha señalado que ya se está además trabajando con esa auditoria-luminica y demás, pues se trata de continuar o sea que totalmente de acuerdo y en ese caso también tal y como ha señalado Oier de acuerdo en que se trate en las comisiones correspondiente y lo vayamos viendo.

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) esan du bai batzordeetan hitz egitea baina irekia dela proposamena, 29:41 mapan ateratako ondorioak ez direla bakarrik puntu beltzei buruzkoak baizik eta genero ikuspegi zabalagoa dela hirigintza planeamenduan eragina izango duena.

Alkateak esan du proposamenak konnotazio negatiboa ematen diola erlijioari eta bere iritzian erlijioak gauza positiboak eta negatiboak dauzkala.

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) argitu du ez duela inolako konnotaziorik, erlijioari lotuta daudenak ez ziren errealitatean existitzen ziren emakumeak, 75 kaleetatik 21 dira gizonenak, gero daude beste batzuek ez zirela gizon errealak, egin duten puntuazio hori zeren benetan 5 emakume izen horietatik existitzen zen bakarra, dela María eta José sortu zuena, hau da, Patxita Etxezarreta, hori bazen emakume bat, baina Arritokieta ez zen existitu, horregatik ez duela erlijioari konnotazio positiboa edo negatiboa egiten, bakarri zen esaten emakume horiek ez zirela existitu.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:

ERABAKIA: Martxoaren 8a "Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko adierazpen instituzionala onartu da.

4.3.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

FEDER; GAIXOTASUN ARRAROEN EGUN MUNDIALARI BURUZKOA,

Alkatea gaia azaldu du esanez proposamena plenora ekarri dutela otsailaren 29an delako gaixotasun arraroen eguna eta gogorarazteko eta pixkat sensibilizatzeko gai honen inguruan dauden kasuak eta nolabait denok jakidun izan gaitezen eta gainontzeko erakundeak e.a. baliabideak eta neurriak hartzeko gutxi izan arren pertsonak gaixotasun arraro horiek jota daudenak ez dutela gutxiago merezi inbestigazioak eta neurriak hartzeko orduan eta nolabait sensibilizatzeko gai bat dela eta kontutan hartzekoa.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:

ERABAKIA: FEDER; gaixotasun arraroen egun mundialari buruzko proposamena onartu da.

5.- ESKARI-GALDERAK:

Arritxu Iribar (EH BILDU) pankartak eta kartelen gaiaren inguruan Udal gobernuari eskatu diote neurria indarrean ez sartzea arautuko duen ordenantza udalbatzan tratatu arte. Bitartean udalak gaiari buruzko ekarpenak jasotzeko bilera irekiak deitzea interesa duten norbanako edo eragileen ordenantzaren lanketa egin eta denen artean adosteko, hori jarri bitartean eta behin betiko ordenantza



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

erabaki baino lehen udalbatzarrera eraman aurretik ekarpen guztia, guztiekin egindako ekarpenak eta alegazioak eta etorkizunari begira, horrelako neurri bat hartu aurretik bai eskertuko luketeela, gutxienez, udala osatzen duten alderdi guztiekin eta batzordeetan lehenengo behintzat eta gero udal batzarrean horrelako erabakiak tratatzea eta gero medioetara ateratzea.

Alkateak esan du gaia tratatu dela batzordeetan, gainera Arritxu Iribar bera han egon zela gogoratu du, kirol patronatuko batzorde batean tratatu zela gai hau eta udal gobernuaren asmoak azaldu zirela, Arritxu Marañon ez zen egon batzorde horretan, eta batzorde horretan izan zutela aukera beraien posizioa azaltzeko gai honen inguruan, eta ez zutela agertu inongo posturarik ez kontra eta ez aldeko botorik, eta orain hemen EH BILDUK egiten duen proposamena momentu horretan ez zuela egin eta atentzioa deitzen diola, orain pleno honetan gai hau ateratzea.

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) esan du ez zela tratatu baizik eta udal gobernuak asmoa zuela hori egiteko, baina ulertu zuela beste batzorde batean tratatuko zela.

Alkateak esan du gai honen inguruan erabakia hartuta dutela, baina konpromisoa hartzen duela batzordeetan gaia tratatzeko.

Alkateak eskari-galderetan oposizio talde nagusiarri zuzenketa bat eskatu dio, izan ere iraileko plenoan EH BILDUKo bozeramaileak esan zuen udal gobernuak ez zuela komunikatua egin Madriden kostasen egindako bileraren inguruan, eta Alkateak berak barkamena eskatu zuela usten zuelako ez zela egin, baina gero komunikabide arduradunak argitu zion kaleratu zela, eman zela bileraren berri. Orduan eskatu dio EH BILDURI plenora etortzen denean adierazpen bat egiten duenean aurrez ondo kotejatu dezala informazioa.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) esan dela oso ondo gogoratzen zer esan zuten baina usten duela egunkarietan azaldu zela joan zela udal gobernuko ordezkari eta udalean berriz ez zela esan zein asmoarekin eta gero azaldu zen komunikatua EAJ bezala eta ez Zumaia Udala bezala, eta uste duela Alkate izaterakoan Zumaia Udala bezala azaldu beharko litzatekeela.

Alkateak zehaztu du komunikatu hori udal gobernuaren izenean azaldu zela, eta ez EAJ ren izenean.

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) esan du ea zergatik irten behar duen komunikatu komunikabideetan eta ez zaie beraien zuzenean ematen.



Zumaia Udala

2016IAKU0001-005-003

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta berrogei eta bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria